



HERRI BIZITZA LAN TALDEAREN BILERA

DATA: 2016/07/13

BILERA ZENBAKIA: 7

ORDUA ETA LEKUA: Arratsaldeko 20:00etan

PARTEHARTZAILEAK: Maite, Rosi, Amaia, Tere, Iker, Iñigo eta Maddi

EGINDAKO LANAREN LABURPENA

LANDUTAKO GAI ORDENA

1. HURRENGO HILABETEKO KULTUR EKINTZAK:

- Abuztuak 14 eta 15 Andra Mari jaiak.
- Irailak 1 Festa Batzordea
- Irailak 10,11,14 Urkiko Jaiak
- Irailak 15 Bingo Herrikoia jubilatuta elkartean.
- Irailak 16,17 eta 18 Itsasondoko Jaiak.

2. AUZOLANA:


Auzolanaren inguruan hizketan hasi garenean konturatu gara bileran geundenetako inork ez duela inoiz parte hartu auzolan batean, beraz gai honen inguruan "distantzia" batetik hitz egin dugu, inplikazio zuzenik ez dugulako.

Komentatu da auzolan kontzeptua falta dela, hau da, bakoitza bere beharretan soilik zentratzen dela orokorrean, kolektiboarena alde batera utziz eta gure ustetan auzolanaren helburua kolektibo baten helburua da.

Bestalde, komentatu da, auzolanean egin daitezken lanak zerrendatu beharko liratekeela (garai batean horrelako zerbaitekin egin omen zen), adibidez herrian hondatuta dauden elementuekin... honekin batera aipatu da garrantzitsua izango litzatekeela zerrenda hau egiterakoan errealitatea ezberdinak dituzten kolektiboetara jotzea, hau da, gurasoak, gazteak, jubilatutak... bakoitzak ikuspuntu ezberdinak izan ditzakeelako.

Lehenengo puntura itzuliz, uste dugu jende gehiago inplikatu beharko litzatekeela (gu barne) eta horretarako deialdi zabalak egiteaz gain, egindako lana erakutsi beharko litzatekeela, adibidez aldizkarian, bestela jendea ez da konturatzen lan batzuk auzolanean eginda daudela.

Deialdiei dagokionez lan bakoitzerako jende egokia bilatu beharko litzateke lana



eraginkorra izan dadin.

Beraz, auzolana beharrezkoa ikusten dugu eta baita hau aurrera eramateaz arduratuko den talde eragile bat izatea ere. Hala ere, talde eragile hau ez da izango ekintza guztiak egingo dituena, baizik eta ekintza horiek egiteko jende egokia bilatzeaz arduratuko dena eta baita herritarren inplikazioa bilatuko duena ere.

ETXEKO- LANAK	NOIZKO?	ZEINEK?
Hurrengo bilera AURREKONTUAK	Irailak 21	Emma
HURRENGO BILERA		
Hurrengo bilera, irailaren 21ean egingo dugu. Aurrekontuak gaia. Arduraduna: Emma		